

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

Saila	Laburpena
Hirigintza	Arratebideko auzokide batek eskatu du Mirabasoko Proiektua 2018ko Udalbatzan onartutako oinarrien arabera egin dadila.
Obrak	Bizilagun batek eskatu du bazterbide bat egiteko Itziotik Mirafloreseraino, oinezkoen segurtasuna bermatu eta, bide batez, ikuspegi panoramikoa izateko.
Zerbitzuak	Pertsona batek eskatu du Pitxargaineko bidea berreskuratzeko; bide horrek Arrateko errepidea Eibarko erdigunearekin lotzen du eta aukera emango du Aldatzeko igogailu berrira joateko.
Hirigintza	Auzoko batek eskatu du dirulaguntza-lerro bat sortzeko, arbola autoktonoen landaketa sustatu eta eukaliptoia landatzea saihesteko.
Zerbitzuak	Egurra batzeko kamioi ugari dabiltzala-eta, Arratebideko auzotar batek eskatu du aztertu daitezela bideak, eta berma dadila kamioiek egoera onean lagatzen dituztela; eta, hala ez bada, zehapenak jar daitezela.
Obrak	Auzokide batek eskatu du berehala egin dadila Berdintasun pasealekuaren eta Mekolaren arteko lehen igogailua, gutxienez.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Itzioko parkearen eskuinaldean dagoen seinale bat ezkerrean jartzeko; itxura denez, ibilgailu astunak igarotzea debekatzeko seinalea, orain eskuinaldean dagoena, landarediz estalita dago eta txikia da.
Udaltzaingoa	Eskatu du Arratebiderako saihebidetaren iritsieran dagoen 30 km/h-ko abiadura-seinalea lekuz aldatzeko. Eskatu du bihurgunea baino lehen jartzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

Saila	Laburpena
Obrak	Salatu du Ardantza eta Arratebide kaleen arteko eskailera erdiraino dagoela bakarrik konponduta. Eskatu du txukuntzeko.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du San Juan eta Mekola arteko igogailuaren matxurak eraginkortasun handiagorekin konpon daitezela. Esan du, gainera, irteera berri bat gehitu zenetik, sarriago matxuratzen dela.
Alkatetza	Eskatu du azter dadila ea posible den autobusen geltoki bat egitea Udalak Torrekuako etxabearen duen biltegian.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du Arratebideko edukiontziak sarriago mantentzeko eta husteko.
Hirigintza	Bizilagun batek eskatu du plater-tiroketaren arduradunei zehapenak jartzeko, lagatzen dituzten kartutxoak eta bolbora direla-eta.
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du Gurutzera igotzeko hasieran dauden hiru bankuak kontrako norabidean jartzeko, alegia, Urkora begira.
Obrak	Pertsona batek eskatu du begiratoki bat jartzeko Gurutzearen lautadan, ikusmiraz gozatu ahal izateko.
Obrak	Pertsona batek eskatu du Arrate inguruetan pasealeku edo bidegorri bat egiteko.
Zerbitzuak	Arratebide 17 zenbakiko bizilagun batek eskatu du auzoko argiztapena hobetzeko. Dioenez, farola batzuk gaizki kokatuta daude, eta beste batzuk, bere etxe parean dagoena, esaterako, etxeei begira daude.
Hirigintza	Eibarren gune libre gehiago eskatzen ditu.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

Saila

Laburpena